

IL AZALPEN PROBA • <i>Dominique</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Ez zekiat inoiz ikusi duan gizon kementsurik beldurrez. Oso gauza tristea duk, eta ez nauk ari beldurra izateaz, esaterako borroka batean, izan ere hor, nork bere aukera baitauka. Baina badituk beldurra sentitzeko beste era okerrago batzuk, eta agintariei zaien beldurraz ari nauk. Hik heuk zuzentzat edukitako gauzak egin eta, halere, beldurra eta lotsa sentitzea, gobernu batek ezetz esaten duelako. Norberak ez bere eskoletan ez beste inon ez beste inolako aukeratan bere mintzaira hitzegiteko eskubiderik ez izatea, nahiz eta hizkuntza hori frantsesa baino askoz antzinakoagoa izan eta, oraindik okerragoa dena, norberak krimena egin balu bezala sentiaraztea euskaldun jaio delako.

Aita amorruz zurbil zegoen eta hori neure bizitzan gutxitan ikusia neukan zerbait zen. Buruari astindu zakar bat eman zion ideiak garbitzeko bezala.

IL AZALPEN PROBA • <i>Dominique</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ik* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Gogoan izango duk –jarraitu zuen aitak– Jean, adiskidea, mutil ona zela; beti pozik, atsegin egoten huen eta inoiz ez huen istilutan sartzen. Gogoan izango duk beltzarana zela, begi beltzak eta aurpegi luzanga zuela. Tira, batzuetan, txantxetan aritzeko, aurpegi osoa gorantz okertzen zian, ixten zian begi bat eta ezpainak milikatzen zizkian, ahoa desagertu balitzaio bezalako itxura hartuz. Jartzen zuen malapartatu aurpegiaz edonor ikaratzen zian.

Dena den, oraingoan deabruaren beraren aurpegia jartzea eman zioan gogoak eta, aldi berean, patxada osoarekin, arropa poltsa atera zian aulkiaren azpitik. Amerikarrak utzi zioan hitzegiteari eta Jean zertan ari zen begira jarri zen arreta handiarekin. Jeanek bere aurrekaldean jarri zuen poltsa, kordelak askatzeari ekin zioan beti munduko patxadarik handienarekin, sartu zian eskua bertan eta begiratzen hutsez ikara ematen zuen espainiar labana bat atera zian. Estutu gabe, altzoan jarri, sartu berriro eskua poltsan, atera zorroztarria eta labanaren ondoan jarri zian.

IL AZALPEN PROBA • <i>Dominique</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta marginak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Baina —eta aitak seriotasunez eragin zion buruari— tiroengatik istilu batean sartu nintzen. Egun batean begira nengoen nola disparatzen zuten balaztatzen zituzten latei airean eusten ahaleginduz eta George Davis eta beste bandolero bat, neure bizitzan gutxitan ikusi dudak bezalako kaiku aurpegia zeukan bat, eztabaidan hasi ziren. Biek deabruzko trebezia zuten pistolarekin eta, nahiz eta George Davis izan ia beti irabazlea, oraingoan inork ezin zuen garaitu bestea. Dirua jokatzea erabaki zuten eta ea nork irabazten zuen. Jarri zuten urre pipita bat kortako hesola baten gainean eta tarte luzea egin zuten atzeraka. Ezinezkoa neritzon azertatzeari.

IL AZALPEN PROBA • <i>Dominique</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ik* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Etorri zen zopa eta gero entsalada inolako arazorik gabe. Baina arazoa sortu zen kamararia entsaladaren platerak kentzera eta jaki nagusiarentzakoak jartzera etortzean. Jaso zuen Johnena eta nirea eta gero gauza bera egin nahi izan zuen aitarenarekin, baina ezina gertatu zitzaion, zeren eta aitak bere bi eskuez eusten baitzion mahaian.

–Barkatu –esan zuen kamarariak–. Jan zenuela uste nuen.

–Amaitu dut –esan zuen aitak.

–Oh –esan zuen kamarariak, eta berriro platerari heldu nahi izan zion.

Aitak eutsi egin zion berriz ere.

–Har al nezake zure platera, jauna? –galdetu zuen kamarariak.

–Ez –erantzun zion aitak modu onean.